

P4 Ariketa. Tonemak detektatu

Entzun albiste honen audioa eta saiatu zaitez hutsune bakoitzaren tonemak identifikatzen. Gogoratu tonemak honela irudikatzen direla:

Kadentzia: ↓

Antikadentzia: ↑

Suspensioa: →

Semikadentzia: ↘

Semiantikadentzia: ↗

Aste iluna (↘) izaten ari da zinemagintza alorrean (↓). Astearte arratsaldean Jose Luis Cuerda (↗) espainiar zinegilea (↘) hil zela izan zen albiste (↘), eta gaur (↗), berriz (↗), Hollywood klasikoko aktore handienetako batek esan digu agur (↓): Kirk Douglasek (↓). Belaunaldi eta herrialde ezberdinetako ikur izan dira (↗) Cuerda eta Douglas (↓).

103 urte zituela (↘) hil da Bart Douglas (↗), Hollywoodeko Urrezko Aroko aktore emankorrenetakoa (→). Hirutan Oscar sariak irabazteko hautagai izan bazen ere (↗), ez zuen sekula garaikurrik lortu (↘), 79 urterekin jaso zuen ohorezko saria salbu (↗).

Nazioartean ospetsu egin ziren drama generoko filmetan parte hartu zuen (↗): Stanley Kubricken Paths of Glory (↗) eta Spartacus pelikuletan, Minelliren The Bad and the Beautiful, Lust for Life edota Billy Wilderren Ace in the Hole maisulanetan aztarna gogoangarria utzi zuen.

Gainera (↗), industria zinematografiko estatubatuarrari aurre egiten ausartu zen bakarrenetakoa izan zen (↓). 50eko hamarkadan ezkerreko sortzaileen kontrako sorgin ehiza (↗) eta zerrenda beltz famatuak deuseztatzeko gogor lan egin zuen (↗), Joseph McCarthy senatari antikomunistaren politiken aurka (↓).

Bestalde (↗), otsailaren 4an (↗), 72 urte zituela (↘) zendu zen Cuerda (↘). 1980ko hamarkadan hasi zuen Albaceten jaiotako zinegileak bere ibilbidea (↘), eta hasiera-hasieratik (↗) komedia absurdoaren erregea izan zen. Bere izena *Amanece, que no es poco* filmari lotuta dago (↗), izan ere (↗), espainiarraren lan arrakastatsuen bilakatu da, nahiz eta estreinaldi xumea izan zuen bere garaian (↓). Kultuzko filma izatera iritsi da (↘), batez ere (↗), umorearen erabilpen pertsonal eta partikularragatik (↓).

Albisteak zinea.eus web orrialdetik hartuta eta moldatua